



TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Osteguna
2009-12-24

VII. URTEA 1.890. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Pako Larrañaga Martuteneko espetxera ekarri dute dagoeneko

ALEGIA Presoaren osaba Pako Larrañaga alegiarraren hitzetan sendia «oso pozik» dago lekualdaketarekin

HURRENGO PAUSOA Bigarren graduan dago gaur egun eta orain hirugarrena lortzeko ari dira lanean »



LGARCIA

UGAITZ RENOBALS PILOTARIA

«Profesionaletan aritzeko aukeraren zain jarraitzen dut»

ALEGIA Afizionatuen goi mailan aritzen da aurrelaria eta aurten sei txapel jantzi ditu »5



Bonberenea Txarangak alaitu zituen atzo Tolosako kaleak. E. EZEIZA

Okupazio Eguna ospatu du Bonbereneak herrian zehar

TOLOSA Etxe autogestionatuaren 12. urteurrena dela-eta kalejira egin du Bonberenea Txarangak »2



Berto antzerkia, atzo Iruran. E. MAIZ

Datozen egunetan badago zer egina eskualdean

GABONAK Herri askotan prestatu dituzte haur zein helduentzako ekitaldiak »3

Ignacio Garcaren margolanak jubilatuen tabernan

ALEGIA Hilaren 31 arte ikusi daitezke lanak; lehiaketa bitxia ere antolatu dute »4



HITZAK harpidedun eta irakurleei Gabon zoriontsuak opa dizkie

Hurrengo alea **abenduaren 29an** argitaratuko da



Okupazio Eguna, jairako aproposa

TOLOSA • Hamabi urte igaro dira, Tolosako hainbat gaztek Bonberenea okupatu zutenetik. Hori dela eta, urteurrena gogoratzeko, Okupazio Eguna ospatu zuten atzo. Ekitaldien baitan afari jendetsu bat egin zuten. Baina honen aurretik Bonberenea Txarangak kalejira eder bat eskaini zuen Tolosako kaleak alaitzeko. Eguna ondo bukatzeko gauerdian su artifizialak ere bota zituzten. Hamabigarren urteurrenako ekitaldiei larunbatean emango diete jarraipena, Atila y los unos taldearen kontzertuarekin. Bertan, Javi Otxoa taldekide zenduari omenaldia egingo diote bere lagunek. E. EZEIZA

Galtzaundik banatu ditu Eskerrak Zuri Aipamenak

Tolosa » Juan Joxe Agirre, TAKeo sustatzaileak, Mattin Labayen eta Laringektomizatuen elkarteak saritu dituzte.

ERREDAKZIOA

Abendua urte guztian zehar egindako lana eskertzeko erabiltzen den hilabetea izaten da eta Galtzaundi euskara taldeak ere hauxe egiten du urtero Eskerrak Zuri Aipamen Berezien bidez. Aurtengoa Juan Joxe Agirrek, TAKeo sustatzaileak, Mattin Labayenek eta Laringektomizatuen elkarteak egindako lan isila aitortu eta publiko egin dute.

Kirola, kultura, gizatasuna eta euskararen alde egindako ibilbidea eskertzeko modua dira, Galtzaundik eskaintzen dituen sari berezi hauek.

Aurtengoa ohorezko aipamena Juan Joxe Agirre Alegiako fraide beneditarrarentzat izan da. 1973an, Euskal Herriarekin zerikusia zuen argitalpen oro jasoko zuela erabaki zuen eta ordutik



Hilaren 18an udaletxeko batzar aretoan banatu zituzten sariak. I. T.

hona egindako bilketa eta sailkatze lanari esker, euskal gaiekin buruzko funtsik garrantzitsuenetakoa bat osatu du; artxibo bat.

Kirol arloko aipamena, TAK arrauaren sustatzaileentzat izan da. Egun, arrauna bizi-bizi dago Tolosan, eta hori hein handi batean, Tolosaldeko Arraun Klubari zor zaio. Sustatzaileen izenean, Julian Gorostiagak jaso zuen saria.

Kultur arloan, aldiz, egindako lana eskertu nahi izan diote Galtzaundikoek Mattin Labayeni. Ibilbide oso bat goraiatu nahi

izan dute, oso ezaguna baita eskualdean, tolosarraren obra. Bere koadroen edertasunaz gain, bere sormenak Tolosari eta Tolosaldeari egin dion ekarpena azpimarratu nahi izan du epaimahaia.

Azken saria, hau da, gizatasunarena, laringektomizatuen elkarteak jaso du. Bertan, laringe minbizirik sendatzeko ahots kordak kendu dizkieten lagunak elkartzen dira, eta beraiek igarotako gaitz bera dutenen etxetara joaten dira, laguntza psikologikoa eskaini ahal izateko.

Pebet Memorialeko hiru partida, gaur goizean

Villabona » Ostegunean jokatu beharreko norgehiagoka batzuk atzeratu egin ziren eta gaur izango dira 11:00etan.

ERREDAKZIOA

Antton Pebet Memorialeko pilota txapelketak aurrera jarraitzen du. Joan den ostiralean jokatu beharreko partidak, eguraldi txarraz eta, bertan behera geratu ziren eta gaur bertan jokatuko dituzte. 11:00etan hasiko dira partidak eta denera hiru izango dira. Kadetetan, Ormazabal eta Erostarbe bikotea Maiza-Elustondoren aurka ariko da. Bigarren partida, jubentzen artekoa izango da, Urbieta-Jaka eta Oronoz-Maizarena artekoena, hain zuzen. Nagusietan bertan, Goñi-Iriarte bikotea eta Lizaso-Erreka izango dira aurrez aurre.

Gaurko partidak beraz, ederrak espero dira, jubentzen mailako batez ere, partida gogorra espero baita. Nagusietan Iriarte pilotari leitzarria eta Erreka ariko dira atzeko lehian eta aurreko jokoa, Lizaso eta Goñiren artekoa izango da.

Hotza protagonista lehen partidetan

Bestalde, larunbatean jokatu zituzten azkenik txapelketako lehen partidak. Bi gradu zero azpitik zeuden pilotalekuan, baina hala ere, jende ugari bildu zen Zizurkilgo Intxaurren frontoian.

Kadetetan, Otaño-Murgiondo, Artola-Nazabalen aurka aritu ziren. Denen gainetik Artola nabarmendu zen, berak markatu baitzuen erritmoa. Norgehiagoka osoan alde handia izan zen markagailuan. Bukaeran Otañok belurrak uxatu eta jokatzeko hasi zen, baina beranduegi izan zen eta 22-10 amaitsu zen partida.

Bigarren partidaren Ariztimuño-Ulanga bikoteak jipoiak jaso zuten Etxaniz azpeitiarraren eta Aizpirtarte hernaniarraren eskutik. Etxanizek markatu zuen erritmoa honakoan. Bizi sakatu eta ezkerria bikain maneiatu zuen. 22-4ko emaitzarekin amaitsu zen partida.

Azken partidaren Elurbek Azanzarekin 22-11 galdu zuen Mendizabalen eta Aldaperen aurka. Aldape txukun aritu zen eta Mendizabalek bikain maneiatu zuen partida, bere hutsak atondu zutelarik aurkariaren markagailua.

"Xirimiri"
Txokolategia
Erremerari kalea, 40
20400 Tolosa
Telef. 943 67 52 23
Gabon zoriontsuak pasa



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Atzo, Anoetan Tor Magoa izan zen eta Iruran 'Galtzagorriei to, Inaxito!' bertso-antzerkiarekin gozatu zuten. E. MAIZ

Haur, gazte eta helduek badute non aukeratua Gabon egun hauetan

Gizartea » Musika, kirola, jolasak, tailerrak eta irteerak izango dira. Ekintza gehienak etxeko txikienei zuzenduak dira.

ENERITZ MAIZ

Gabon egunetan sartu gara eta haurrekin batera gazte zein guraso askok jai egunak izan ohi dituzte. Gaur gauez gainera, eskualdeko herri eta etxe guztietara Olentzero iritsiko da opariz beteta. Egund hauetarako, urtero bezala, herri ezberdinetan haurrei zuzenduriko eskaintza ezberdinak prestatzen dituzte.

Anoeta, Aduna, Asteasu, Irura, Zizurkil, Larraul, Alkiza, Tolosa... aukera zabala eta ekintza ezberdinetan parte hartzeko aukera dago herri askotan. Jolasak, irteerak,

musikak, tailerrek, kirolak... guztiek izan ohi dute tartea egun hauetan ere.

Gabonetako ohiko irteeren artean, Donostiako Txuri-Urdinen izotz gainean patinetan ibiltzera joatearena izaten da. Hilaren 29an, eskualdeko gaztetxo mordoak pasako da bertatik. Besteak beste, Anoeta, Aduna, Alkiza, Larraul eta Zizurkilgoak izango dira. Guztiak egun berean bertan topatuko dira. Autobusez joanda goiz pasa egingo dute, Zizurkilgoak izan ezik, hauek arratsaldeko 15:15eko trenean joango baitira. Guztiek aldatzeko arropa eta eskularruak eramatea komenigarria litzateke.

Bestetik, musika arloan Anoetan Eguberri egunean bertako Txistulari Taldea kalejiran ibiliko da 12:00etatik aurrera. Hilaren 27an berriz, Iruran, meza abestia izango dute. Bertan Eguberrietako

abestiak abestuko dituzte eta Aita Donostia abesbatzaren emanaldia izango dute. Musikaz gain, Iruran Trinketeko Gipuzkoako Txapelketako partidak jokatu diko dira.

Zerkausian haur parkea

Hilaren 28an, astelehenean, zabalduko ditu ateak Zerkausian lau egunez egongo den haur parkeak. Goizez 11:00etatik 13:30era egongo da zabalik eta arratsaldean, al-diz, 16:30etik 20:00etara. Sarrerarik ez da ordaindu behar eta haur guztiek izango dute lekua bertan jolastu eta ondo pasatzeko. Gainera, begiraleak ere bertan egongo dira guztia behar bezala egon dadin.

Haur, gazte eta ez hain gazteek ere gozatzeko moduko gauzak izango dira bertan: bideo jokoak, *aerogiro*-a, ate puzgarria, futbolina, Santa Fe tren, *Bunge Run*, hiru

puzgarri ludoteka tokiarekin, txapak egiteko tailerra...

Topagunearen Gazte Astearen baitan berriz, hilaren 26tik 30era, talo tailerra, argazki proiektzioa eta filmen, bideo jolasen zein eskularen tailerrak izango dira.

Era berean, Adunako liburutegian postal tailerra egingo dute hilaren 29an 17:30etan. Tailerraren helburua umeen imaginazioa eta barruko sentimenduak lantzea da. Asteasu, *Rudy*, *Txerri Azkarra* filma ikusteko aukera izango dute eta ondoren merienda ere egingo dute. Zizurkil jarraituz, gaztetxoek lagunartean jolasteko aukera izango dute. Iruran, hilaren 28an, Zirika Zirkus taldearen *Zorionak* pailazo ikuskizuma izango da 17:30ean musika eskolako aretoan eta Gaztelekuan, 17:00etatik 21:00etara, afaria eta gaupasa izango dute.

Laburrak

12:00etan plazan gaztaina erreteko aukera

IBARRA » La herri guztietan bezala, Ibarren ere herri guztian zehar kantuan ibiliko dira gaur. Uzturne ikastolako haurrak, 10:00etan hasiko dira herria zeharkatzen eta 12:00etan guztiak plazan elkartuko dira. Bertan, goizeko 09:00etatik aurrera, guraso talde bat gaztainera erretzen ariko da. Guztira 50 kilo gaztaina erreteko dituzte eta gonbidatuta daude ikasleak, ikasle ohiak eta baita gurasoak ere.

Oria Merkatarik Elkartean bi saskiren zenbakiak

VILLABONA » Oria Merkatarik Elkarrekin zozketatzen dituen bi saskien zenbaki sarituak atera dira. Aurten lehen zenbakia 14.462 izanda eta bigarren saskiaren zenbakia 8.637a. Oria Merkatarik Elkartetik saskiak jasotzeko hilaletako epea dagoela jakinarazi dute. Bestalde, zortedunak agertuko ez balira, hilaletan beste zozketa bat egingo lukete.

Hilaren 29an Ohiko osoko bilkura 19:30ean

TOLOSA » Hilaren 29an Tolosako Udalean ohiko osoko bilkura egingo dute 19:30ean. Besteak beste, gai hauek jorratuko dira: 2010eko Aurrekontu Orokorra onartzea; 2010eko ekitaldirako Tolosako udaleko eta lurreamendi Egoitzako plantila onartzea; Udaleko 2010 urterako lanpostuen zerrenda onartzea; Klausula administratibo partikularren plegua: Tolosako parke, lorategi, berdegune eta kaleko zuhaitzen mantentze-lanak egiteko zerbitzu kontratatzea (enpleguko zentro berezizat erreserbatua). Jasangarritasunerako II. Tokiko Ekintza Planaren onarpena eta urriaren 13an izandako atxiloten inguruko mozioa eta Aramaioko udalak aurkeztutako mozioa izango dira.

Leidor zineman filmak euskaraz ikusteko aukera

TOLOSA » Leidor zineman, ostiralean 19:00etan *Avatar* eskainiko dute. Larunbatean, 17:00etan *Txuri urdin* filma euskaraz ikusteko aukera izango da eta 19:00etan eta 22:30ean *Avatar* egongo da. Hilaren 27an, euskarazko Ahatetso itsusia eta ni filma 17:00etan hasiko da eta 19:00etan eta 22:00etan *Avatar* eskainiko dute. Hilaren 28an, 17:00etan *Doraemon* eta *Dinosaurio Txikia* euskaraz izango da eta 20:30ean *Avatar* filma.

» GABONETAKO ESKAINTZAK

Anoeta

- **Abenduak 25.** Anoetako Txistulari Taldearen kalejira 12:00etan.
- **Abenduak 29.** 10:30ean Txuri-Urdinera irteera. Autobusa 10:30ean aterako da.

Aduna

- **Abenduak 29.** Postal tailerra liburutegian 17:30etik 19:30era. Adinaren araberako taldetan banatuko dituzte.

Asteasu

- **Abenduak 28.** 16:00etan udal txeko zine aretoan *Rudy*, *Txerri Azkarra* euskarazko filma. Ondoren, Guraso Elkartean merienda.

Larraul, Alkiza eta Aduna

- **Abenduak 29.** 11:00etatik 14:00etara Txuri Urdinera irteera egingo dute. Autobusa Larrauletik

10:00etan abiatuko da, Alkizatik 10:15ean eta Adunara 10:30ean iritsiko da Donostiarajateko.

Irura

- **Abenduak 26.** Gipuzkoako Trinketeko Txapelketako partidak, 10:00etatik 20:00etara.
- **Abenduak 27.** 9:30etik 13:30era Gipuzkoako Trinketeko Txapelketako partidak. 11:00etan Meza abestia: Eguberrietako abestiak eta Aita Donostia abesbatzaren emanaldia izango da.

- **Abenduak 28.** 11:00etatik 13:00era liburutegia eta haur txokoa. 17:30ean Musika eskolan, Zirika Zirkus pailazo ikuskizuma eta 17:00etatik 21:00etara gaztelekuan afaria eta gaupasa.

Tolosa

- **Abenduak 26.** Talo tailerra, 17:00etan Topagunean.
- **Abenduak 27.** Argazki proiektzioa eta filma izango dira Topagunean 17:00etatik aurrera.
- **Abenduak 28 - 29.** Bideojolasak:

Sing Star eta Wii, Topagunean.

- **Abenduak 30.** Eskularen tailerra Topagunean.
- **Haur parkea.** Abenduaren 28tik 31ra bitarte Zerkausian, 11:00etatik 13:30era eta 16:30etik 20:00etara egongo da zabalik.

Zizurkil

- **Abenduak 28, 29 eta 30.** Jolasak 09:30etik 13:00etara Pedro M. Otaño Ikastetxean.
- **Abenduak 29.** Txuri-Urdinera irteera egin dute, 15:15eko trenan.

Iragarki laburrak

MAIUSKULA

- **Bigi garbitasunak.** Alfonbrak, etxeak, bulegoak eta abar garbitzeko prest. Deitu inongo konpromisorik gabe. Gurutze: 638 94 46 04 edota Belen: 695 70 82 71.

Taberna - Jaletxea
Zaharren Biltokia
zorionak eta eguberri on!
• Aste osoan eguneko menua
• Zure aurrekontura egokitzen gara
• Menu bereziak
Tel.: 943 69 26 32 • Mikel Deuna Plaza, 8 • IRURA

Euskal paisaiak

Alegia » Jubilatuen tabernan Ignacio Garcieren margolanak ikusgai daude hilaren 31 arte.

IMANOL GARCIA


Ignacio Garcia tolosarraren margolanak ikusgai daude Alegiako jubilatuen tabernan hilaren 31 arte. Olio teknika erabiliz 12 koadro jarri ditu, gehienak eskualdeko mendi eta baserriak irudikatzen dituztenak. «Mota ezberdinetako koadroak margotzen ditut, baina erakusketak egiterakoan normalean gai bat aukeratzen dut eta Alegian horiek jartzea aproposa iruditzen zitzaidan», azaldu du Garcia.

Margolariak paisaiak ez ditu lekuetara joanez margotu, Euskal Herriari buruzko entziklopedia batean aurkitutako argazkietatik baizik. Olioarekin margotzea gus-tuko du Garcia: «Akuarela erabil-

tzea baino gehiago gustatzen zait, hobeto moldatzen naiz olioarekin». Garciaentzat margotzea terapia da: «Lasaitasuna ematen dit, beste gauza guztiak ahaztu egiten naiz». Margolariak Tolosako Itaie tabernan ere erakusketa du.

Asmatu nongoa den koadroa

Erakusketaren inguruan lehiaketa antolatu du Alegiako jubilatuen tabernak. Parte-hartzaileak asmatu egin behar du koadro bakoitza nongoa den. Koadroek zenbaki bat dute eta tabernan orri batzuk dau-de, zutabe batean lekuen izenekin eta ondoko zutabeen hutsuneekin, zenbakiak jartzeko. Lehiaketa asmatzen duenak gustuko den koadroa eraman dezake etxera.



Ignacio Garcia margolariak Alegiako jubilatuen tabernan jarri dituen hamabi koadroetatik hiru. HITZA

Tolosan mugikortasun gehiago

ERREDAKZIOA

Tolosako kolektorearen lana azken fasean aurkitzen da eta «erritmo onean» doa Udalaren esanetan. Horren adierazle Barrena eta

Rondilla kaleak aipatu zituzten; atzotik ibilgailuen trafikoa berriro martxan da aipatu kaleetan.

Triangulon ere mugikortasuna hobetzeko neurriak hartu ziren

atzokoan, hau da, bertan egiten ari diren putzuaren alde bat itxi zuten eta ondorioz ibilgailu zein oinezkoek lasaiago ibiltzeko aukera izango dute gune horretan.

San Frantziskon, Zumalakarregi kalea zeharkatzen duen zebra-bidea zabaldu dute, Soldadu kalekoa kenduz.

Horrez gain, Lizardi Plazan katuriko putzua, urtarrilaren amaieran bukatuko omen dute, Urairen Euskal Agentziaren arreikuspenen arabera.

Urbanizazio lanak

Lan batzuk amaitzeaz aurkitzen direnean, beste batzuk hastear daude. Hauen artean Lapurdi plazaren urbanizazioa aipatu behar da, urtarrilaren jarriko baitira lanak martxan.



Ikasle eta gurasoak poesia ahotan

ALBITUR » Gabonetako oporrei hasiera emateko atzo Albizturko eskola-ko ikasle eta gurasoek poesia emanaldia egin zuten udaletxean. Aretoa bete egin zen eta oso txalotua izan zen bai ikasleek eta baita gurasoek egindako emanaldia. Ondoren, guraso bakoitzak emandako jakiak elkarrekin jarri eta denon artean bazkaria egin zuten Kultur Etxean dagoen jangelan. E. EZEIZA

ILEAPAINDEGIA



Joseba

ileapaindegia

Zorionak
eta eguberri on !

Nafarroa etorb. 12 • Tolosa
Tel.: 943 65 26 98

E Elkarrizketa

UGAITZ RENOBLES ▶ Pilotaria

Alegia » Goi mailan aritzen da Renobales afizionatuetan; aurten sei txapel garrantzitsu jantzi ditu aurrelari alegiarrak.

IMANOL GARCIA

Txikitan hasi zen Ugaitz Renobales (Alegia, 1986) Aurrera-Saiaz pilota eskolan eta bertan jarraitzen du egun ere. Afizionatu mailan lau urte inguru daramatza aurrelariak.

Aurten txapelketa bat baino gehiago irabazi dituzu.

Bai, aurten lortu ditut GRAVNe-koa, Berriakoa, Gipuzkoakoa elite mailan, Matienakoa, Lezokoa eta Egiakoa.

Binaka jokatu eskuratu dituzu?

Bai, baina bikote ezberdinekin. Txapelketa antolatzen dutenek egiten dituzte bikoteak. Berriako txapelketan Aurrera-Saiazeko eskolako beste batekin aritu nintzen, baina besteetan antolatzaileek erabakitzen dute.

Eta gustura zaude lortutako emaitzekin?

Gustura nago eta iruditzen zait maila nahiko ona ematen ari naitela. Eguberrietan txapelketa gutxi izaten da. Orain Laudion jokatzen ari naiz txapelketa bat.

Hau izan da afizionatu mailan izan duzu urterik onena?

Afizionatuetan egia esateko nahiko urte ona daramat, ez dakit onena den, baina ona izaten ari dela bai.

Zein txapelari ematen diozu garrantzi gehien?

Gehienak dira garrantzitsuak. Afizionatuetan punta-puntan dabilzanekin egiten dira torneo horiek. Garrantzi gehiena ematekotan, Berria txapelketa izaten da klubaren artekoa eta ilusio egin zidan horregatik, klubeko batekin irabazi nuelako. Beste denetan ere txapelak irabazteak ilusioa egiten du, gauza handia da.

Egin zenuen jokoa dagokionez, baten bat nabarmenduko zenuke?

Egia esan ez naiz gogoratzen nola jokatu nituen denak. Irabazi bagenituen zerbaitegatik izango zen, baina ez naiz zehatz-mehatz gogoratzen nola jokatu nuen bakoitzean.

Azken txapela Egiakoa izan da, ezta? Nolako izan zen txapelketa hori?

Finala Lopezekin jokatu nuen eta aurkariak Armendariz-Gorrotxategi izan ziren. Partida zaila izango zela espero nuen, baina egia esateko Lopezek eta biok nahiko maila handia eman genuen eta nahiko erraz irabazi genuen, 22-13ko markagailuarekin. Gero finaleko pilotari onenaren saria eman zidaten eta horregatik ere gustura.

Txapelketa horretako azken lau

«Profesionaletan aritzeko aukeraren zain jarraitzen dut»



I. GARCIA

finaletan izan zara eta horietatik hiru irabazi dituzu. Harreman berezia duzula dirudi txapelketa horrekin.

Beti eman diot garrantzi berezia, urtero finalera iristen naizelako. Donostian da eta jende asko joaten da, afizio handia dago. Txapelketa polita izaten da eta garrantzia ematen diot, bai.

Afizionatuetan elite mailan aritzen zaretenon eta profesionalen artean maila handia izaten da?

Afizionatuetan puntan ibiltzen direnak aukera izaten dute profesionalen artean debutatzeko. Horretarako ari gara lanean ahal den hoberen, ea profesionalak iristen garen.

«Aurtengo txapel guztiak garrantzitsuak dira; puntako pilotariek parte hartzen dute»

Baina ez da erraza eta hor jarraitzen dugu aukeraren zain.

Afizionatuetan goi mailan zabilta. Zergatik uste duzu ez dizute la aukera eman?

Enpresek jakingo dute zergatik ez didaten aukerarik eman. Ni behintzat saiatzen ari naiz eta saiatuko naiz eta ez bada aukera iristen ere ez dit asetu inporta. Gustura nabil profesionalen artean eta hortxe jarraituko dugu.

Enpresek probak egiten dizkiete pilotariei kontratuak egiteko. Zuk egin ahal dituzu?

Orain dela hiru edo lau urte Asegarekin egin nituen bi-hiru entrenamendu. Bestela ez didate ezertarako deitu, entrenamenduak egiteko ere ez.

Ez da erraza, beraz.

Oso zaila da. Pilotari asko gaude eta denei aukera ematea ez da erreza izango.

Afizionatu mailan ere mugimendua handia izango duzue: entrenamenduak, asteburuetan partidak...

Aste bitan aritzen gara frontoian entrenatzen. Bestela beste bi egu-

«Pilotari asko gustatzen zait eta telebistan asko ikusten dut eta frontoira ere askotan joaten naiz»

netan fisikoa lantzen dugu eta gero asteburuetan partidak bat edo bi, tokatzen zaigun arabera. Aste guztia horri dedikatuta ez, baina denbora asko kentzen du.

Afizionatu mailan aritzen zaretenak elkar ezagutuko duzue.

Puntan gabiltzanak beti elkarren aurka jokatu dugu eta ezagutzen gara. Hori ere polita da, pilota munduan lagun asko egiten dituz.

Baina lehiakortasuna ere izango da.

Hori beti izaten da. Batzuekin hobeto ematen zara, besteekin gaizkiago, baina lehiakortasun sanoa izaten da eta polita izaten da.

Profesional mailako partidak jarraitzen dituzu?

Bai, bai. Pilota asko gustatzen zait eta telebistan beti hor egoten naiz partidak ikusten eta frontoira ere asko joaten naiz. Gustatu egiten zait mundu hori.

Zer bait ikasteko aukera beti izango da.

Besteei ikusten ere asko ikasten da. Esaten dute besteak ikustea ona izaten dela, gorputzak zer jarrera

«Alegiatik Herriarteko Txapelketara aurkezteko asmoz gabiltza; nahiko maila polita dugu»

hartzen duen ikusteko. Frontoira buelta asko egiten ditut partidak ikustera.

Baduzu pilotari gustukoren bat?

Aurrelari bezala jokatu dudanez, betidanik Aimar Olaizola gustatu izan zait. Horretaz aparte Bengoetxea eta Barriola ere asko gustatzen zaizkit.

Atzelari bezala zein gustatzen zaizu?

Orain puntan dabilzanen artean,

Begino asko ari da ikasten. Baina niri atzelari bezala gehiena Barriola gustatu izandu zait eta orain lezionatuta dago eta pena horixe, baina bestela Barriola asko gustatzen zait.

Eta zer frontoi duzu gustukoena?

Orain arte jokatuakoen artean, Beotibar eta Bergarako frontoia dira gehien gustatzen zaidana.

Zure jokoa zer baitetan nabarmentzen zara?

Ni ezkerria naiz eta beraz esku horrekin ondo moldatzen naiz. Orain ari naiz airez sartzen gehiago ikasten, baina nik uste dut ezkerrekin ondo mugitzen dudala pilota. Eskuinarekin ez naiz hain ondo moldatzen.

Beraz, Xala eta Gonzalez pilotariei, hauek ere ezkerrek, asko begiratuko diezu.

Horiekin ere asko ikasten da eta bai begiratzen diet beraien ere.

Poztu zinen Gonzalezek Irujori Lau t'erdikoan irabazi zioenean?

Egia esan Gonzalezen alde nengoen. Ez nuen uste irabaziko zuenik, Irujo jotzen nuelako faborito bezala, baina gustura geratu nintzen Gonzalezek irabazi zuean.

Datorren urtera begira zer erronka dituzu?

Ahal den maila handiena eman afizionatuetan eta ahal den txapela gehien irabazi eta gero ikusiko da norbaitek aukera ematen duen profesionalak pasatzeko. Hala bada, ondo, bestela, lehen esan dudana, afizionatuetan ahal den maila handiena eman eta ondo pasatzea, disfrutatzea.

Datorren urtean Alegiatik Herriarteko Txapelketara aurkezteko asmoa duzue, ezta?

Asmo horrekin gabiltza. Nahiko maila polita dugu. Kadeteetan eta jubiletan nahiko bikote politak ditugu eta afizionatuetan ni eta Artola arinok gaitate. Parte hartzea pentsatu dugu eta ikusiko dugu zein maila ematen dugun.

Ez da lehiaketa erraza izango.

Ez, talde indartsuak daude hor. Gu aterako gara, ez dugu ezer galtzeko ere. Ez dakit aurretik Alegia aurkeztu den txapelketara, baina aspaldian behintzat ez du parte hartu.

Profesionalak pasatzeko aukera ez baduzu izaten, zenbat urte gehiago jarraituko duzu pilotari?

Hori ez dut pentsatu, noiz utzi edo noiz ez pilota. Ni ez naiz pilotatik bizi, lana ere egiten dut. Pilota asko gustatzen zaidanez, oraindik jarraituko dut pilotari.

Pilotari hasten diren gazte xoen ze gomentio egingo zenioke?

Aurreneko gauza disfrutatuta egin behar dela. Gero eta maila handiago ematen ari direnean, ikusiko da, baina hasieran ez dut uste txapelak bila joan behar dutenik. Aurrena behintzat disfrutatuta egin behar da eta gero kadete edo jubiletara iristen direnean, orduan txapelak pentsatzeko aukera izango dute.

Pako Larrañaga Donostiako Martutene espetxean dago zigorra betetzen

Alegia » Herenegun ekarri zuten Madrilgo Soto del Real espetxetik; preso eta bere familia «oso pozik» daude lekualdaketarekin.

ERREDAKZIOA

Pako Larrañaga preso eta bere sendia «oso pozik» daude, dagoeneko Donostiako Martutene espetxean baitago Larrañaga. «Espero baino lehenago ekarri dute», azaldu du presoaren osaba Pako Larrañaga alegiarrak. «Bere gurasoak Madrilerira joan ziren Gabonak Pakorengandik gertu pasatzeko eta berarekin egoteko hitzartuta zeukaten hilaren 25erako bisean biseko bisita. Madrilen bertan zeudela jakin dute Martutenera eraman dutela».

Madrilgo Soto del Real espetxetik Martutenera herenegun ekarri zuten Larrañaga. Familiari esan dienez, «oso gustura» dago, orain beraiengandik gertuago dagoelako. Manuel Larrañaga eta Margot Gonzalez bere gurasoak oraindik Madrilen daude eta bihar iritsiko dira Gipuzkoara.

Larrañagaren osabak azaldu duenez, «goizerako ez dira iritsiko eta ez dakit bisean bisekoa aldatzerik izango duten egun horretan arratsaldean Pakorekin egoteko». Soto del Realeko espetxean goizean zuten bisean bisekoa eta espetxe batetik bestera eskubide horiek pasatzen direla azaldu die abokatuak. «Espero dugu aukera izatea Miguelek eta Margotek 25ean berarekin egoteko. Hala ez bada, datorren astean hemen izango dira eta Pako ikusteko aukera

izango dute», gaineratu du presoaren osabak.

Larrañagak bere iloba errugabea dela defendatzen du eta behin eta berriro azaldu duenez, «ez zuen epaiketa justua izan Filipinetan». Bi emakume bahitu, bortxatu eta hiltzea egotzita, heriotza zigorra ezarri zioten Filipinetan, baina 2006an heriotza zigorra kendu eta bizi guztiko zigorra jarri zioten. Filipinak eta Espainiako estatuen arteko akordio baten ondoren, Pako Larrañaga Espainiaratu zuten. Berak eskatuta, Martutenen dago egun zigorra betetzen eta bigarren graduaz dago.

Hurrengo pausoa hirugarren graduaz lortzea da, hau da, espetxerako egitera bakarrik joatea. Eskiera egina badago ere, erabaki hori lortzeak denbora eman dezakeela azaldu dute familiakoek.

Gutunak

Olentzero eta Mari Domingiri gutuna

Ezer baino lehen, gure eskerrik beroenak hainbeste kosta izanagatik ere gure artera etortzeko adorea izan duzuen Olentzero eta Mari Domingiri. Jakin badakigu, Anoetako plaza honetara iristeko egin behar izan duzuen bidea oso gogorra izan dela eta gero eta arriskuetsuagoa sueta dakizuekeela zuen bizilekua uztea, besteak beste, poltsikoak bete asmoz edozein proiektu txikitzaile aurrera eramango lukeen putre asko dabilelako azkenaldian. Hala ere, jakin dezazuela herri oso baten babesa duzuela eta ez dutela berehalakoan lortuko hainbeste maite dugun ama-lurra zatitzea.

Tamalez, ez da hori dugun arazo bakarra, eta beraz, ezin aipamenik gabe utzi hainbeste eraso jasan dituen gazteria. Eman iezaiozue gure besarkadarik beroena, Gabon hauetan etxeko sutondotik urrun

izango diren gazteei eta jakin dezatela Gabonetan ere beraien lanak ez duela inolako etenik izango. Bide batez, muxu bana baita ere, beren herria maitatzeagatik, hau da Euskal Herria maitatzeagatik, gure artean joan diren guztiei eta hauen hutsunea egunero nabaritzen duten senide, lagun zein inguruko.

Bukatzeke, esan, guretzako oparirik onena datorren urtean horrelako gutunik irakurri beharrik ez izatea dela eta ikatza, ume bihurrientzako baino gehiago, aurrez aipatu ditugun putre diruzale horientzako izatea nahi genukeela.

Besterik gabe, eskerrik asko urtero-urtero gure gutunari horrelako harrerara beroa egiteagatik eta aipatu baita ere Gabon hauetarako prestatu dugun egitarauan parte hartzera gonbidatuta zaudetela guztiak.

Anoetako Gazta Asanblada.
Anoeta.

Kantatzen ateratzeko deia egin du Txintxarri Abesbatzak

ERREDAKZIOA

Eguberri egunetan murgiltzen ari gara eta dagoeneko Alegiako Txintxarri Abesbatzak hainbat emandaldi prestatu ditu egun horietarako. Saio garrantzitsuena Txintxarri Txiki eta Txintxarri abesbatzek hilaren 27an Alegiako elizan eskainiko duten Eguberrietako kontzertua izango da. Urte luzeetako ohiturari jarraituz egun horretan Haendel konpositorearen *Alleluia* kantatuko du abesbatzak. Txintxarri dei egiten die abesbatzan urteetan kantatu duten guztiei kantu hori kantatzeko.

Bestalde, Eguberri bezperan kalean kantu-eskean aterako da 17:00etan San Joan kalearen goiko aldetik. Eguberri egunean eta Urte Berri egunean, berriz, meza nagusian kantatuko du herriko abesbatzak.

Aurrera-Saiatz eskolakoak egun hauetan jokatzeko ari dira finalak

ERREDAKZIOA

Aurreko asteburuan jokatu behar ziren Gipuzkoako Kluben Arteko Txapelketako zenbait final, baina Eusko Jaurlaritzak kirol guztieta-ko partidak bertan behera utzi zituen. Horrela, Aurrera-Saiatz eskolako pilotariak egun hauetan ari dira jokatzeko finalak.

Lau final dituzte jokoan. Atzo Oiarzunen jubeniletan banaka jokatu zuena Arratibelek Oiarpekoaren aurka. Gaur, lehen mailako kadeteetan, Zelaia-Elustondok Oiarpe izango du aurkari 10:15ean hasiko den jaialdian Beotibarren. Etzi, hilak 26, Hernanin bi final jokatu dira, 17:00etan hasita: Bigarren mailako jubenilak, Egiguren-Arregi, Mundarro 2ren aurka ariko dira eta lehen mailako jubenilak, Urbieta-Zinkunegi, Hernanin aurka.



Nafarroa etorbidea ordubetez itxita

TOLOSA » Tolosako Nafarroa etorbidea ordubetez itxi zuen atzokoan Ertzaintzak 'El Diario Vasco' egunkariaren egoitzan «pakete susmagarri» bat utzi zutelakoan. Ertzaintza kalean beste pakete baten bila ere

aritu zen txakurrak eta guzti, baina azkenean ez zuten ezer topatu. Egunkariko langileek 15:30ak inguru jaso zuten egoitza uzteko abisua eta orduan itxi zuten kalea. 16:45ean ireki zuten berriz ere. R. CALVO

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



Kaxkabeltza Elkarteko hainbat kide herriko plazan. Merkatarikoa Elkartea Eguberrietako kanpainan murgildurik aurkitzen da buru-belarri. HITZA

Beste hainbat herrik bezala, Leitzak ere badu azaroz geroztik bere Merkatarikoa. Dagoeneko 38 bazkide dira, baina elkartu nahi dutenentzat ateak zabalik jarraitzen dute.

Elkarlanean beti errazagoa baita

ASIER IMAZ

Kaxkabeltza Elkartea sortu dute Leitzako merkatarik, ostalari eta zerbitzu tailerrek. Dagoeneko 38 bazkide dira eta helburu argi batekin ari dira lanean: «Arlo desberdinetan lan egiten badugu ere, kezka eta asmo berak edo antzekoak ditugu: lanpostuak mantentzea, gure formakuntza hobetzea... Elkarlanean gauzak beti errazago direla jakina da eta gure arazo, kezka eta esperientziak konpartitzen saiatzen gara. Denda, taberna, jatetxe, ostatu eta tailerrek gure herriari ematen dioten bizia mantentzea eta hobetzea da gure helburua, bezeroei konfiantzazko eta hurbileko harrera eskainiz».

Idea eta lehen urratsak

Elkarlanean gauzak errazago egiten direla jakin arren, biltzea eta adostasunetara iristek ere bere denbora behar duela badakite Kaxkabeltzako kideek: «2008an Leitzako Udalak eta Zederna Galurrek herriko dendari, ostalari eta zerbitzu tailerretako kideak bilera batera deitu gintuzten. Bertan Elkartea sortzeko ideia eta laguntza eskaini ziguten. Ekimena gustatu eta lanean hasi ginen, horrela

lehen urteko Eguberrietan zozketa bat egin genuen. Bai gure aldetik, bai bezeroen aldetik harrera ona izan zuela ikusita, Elkartea osatzera animatu ginen eta estatutuak 2009ko azaroan egin ditugu».

Lehen urratsen inguruan galde-tuta, taldeak eduki duen hasierarekin «oso pozik» eta «animatuta» azaldu dira.

Estatutuak duela hilabete egin zituzten arren, Elkarlanean funtzionatu duen oraindik erabat «zehaztu gabe» daukate. Eguberrietako kanpainaren ondoren elkartuko dira urteko plangintza eta azken kontuak lotzeko. Oraindik Kaxkabeltza Elkarteko kide ez di-

ren merkatariek beraz aukera bikaina dute: «zenbat eta gehiago izan gauzak orduan eta errazago eta ilusio handiagoarekin egiten baitira».

Herriarentzat arlo desberdinetan onura ekarriko duelakoan dute Leitzako Merkatarien Elkarteko kideak: «Gure herria bizirik mantentzeko garrantzitsuak gareluste dugu; Elkartean gaudenen artean 100 lanpostu inguru osatzen baititugu. Baina horretarako bezeroak behar ditugu, konfiantzazko zerbitzua eta hurbiltasuna baloratzeko. Denen artean daukaguna mantendu eta aurrera begira negozio berriak irekitzeko bermea

eman behar dugu, lanpostuak eta zerbitzuak gehitzeko. Ateak zabalik dauzkagu eta gogotsu hartuko ditugu gainera».

D Datua

38 bazkide

Adur Taberna; Ainart Ileapaindegia; Amaia Arrandegia; Ane Egizabal Fisioetxea; Ariztela Dekorazio Tailerra; Astiz Liburudenda; Arzallus Harategia; Belarra Belardenda; Biok Jantziak; Bitxilore Loredenda; Bixigarri Fruitudenda; Edr Gunea; Etxe Tresnak; Garbi Drogeria; Gaztetxo Gozotegia; Guria Tailerra; Hernadorena Burdindegia; Imelda Larraz; Iruso Jatetxea; Kapritxo Arropadenda; Larraz; Leitz Garajea; Leitzako kiroldegia; Maimur Liburudenda; M.Plaza eta E. Arrupea; Marcia Z.Campos; Musunzar Ostatu; Ogi Berri Okindegia; Oihana Erbiti; Olaia Bazarra; Peritza Taberna; Perurena Harategia; Sagasti Jatetxea; Seikide Asesoria; Torrea Herriko; Urkiola Harategia; Zortziko Labetxea eta Zurlan Zurgindegia.



Merkatarien zozketa ilbeltzaren Sean egingo dute. A. IMAZ



TAO gune urdina Ibarra. A. IMAZ

TAO gune urdineko txartelak hilaren 28tik aurrera eskuragai

Ibarra » Gune urdinetako bizilagunek udaletxeko Bulego Orokorretan lortuko dituzte «bertakoentzako txartelak».

ERREDAKZIOA

Ibarra Udalak jakinarazi duenez TAOko gune urdineko ibilgai-luen jabe diren bizilagunek, hilaren 28tik aurrera, «bertakoentzako txartelak» jasotzeko aukera zabalik edukiko dute udaletxearen Bulego Orokorretan.

Aipatu «bertakoentzako txartelak» jaso ahal izateko, ondorengo agiriak eman beharko dituzte bizilagunek eskaria egin ahal izateko: Nortasun Agiri Nazionalaren eta Zirkulazio-baimenaren kopia bana. Ibarra Udalaren esanetan, azken agiri honetan agertzen den helbideak bat etorri beharko du Biztanleen Erroldan agertzen denarekin.

Gune urdinak Ibarra

Herriko hainbat kaletan jada kolore urdinak eta TAO makinak bere tokia aurkitu dute. Udalak ondorengo puntuetako edo guneetako aparkalekuak pintatu ditu urdinez: Euskal-Herria kaleko 2tik 27ra; Euskal-Herria kaleko 2tik 18ra; Idoagako 3tik 13ra eta Beko-Bide kaleko 2tik 6ra.

**90 URTE BERRITZEN.
90 EGUN PREZIO HISTORIKOEKIN.**

APROBETXATU EZAZU UNE HISTORIKO HAU 2000E PLANAREKIN

SEGURTASUN OSOKO PLANA:

Arriku orotarako aseguru zura Citroen berria, errekaratu eta interesik gabeko eta langabezi estaldura opari

GOZATU BAITA ERE C4, C4 PICASSO ETA C5 MILLENNIUM EREDUEN SERIE BEREZIAN. MYWAY NABIGATZAILEAREKIN.

CITROËN XSARA PICASSO HDI 12.800€tik

www.citroen.es

CITROËN C3 7.300€tik CITROËN C4 HDI 11.600€tik

IROVI, S.A. KONZESIONARIO OFIZIALA CITROËN. INDUSTRIALGUNEA Z/G. • TEL.: 943 65 18 42. ANOETA / TOLOSA



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendariak: Rebeka Calvo.
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordeak: Asier Imaz. **Kudeatzaileak:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aitzondo@tolosaldeko hitza.info.
Alkizan ere Piztu Itxaropena kanpainaren baitan baita gauza bera egingo dute. Udaletxean bertan utzi ahal dira jakiak eta eskolarako materiala urtarriaren 31 bitarte.
Anoetaldeak: 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarraldeak: 687 410 032. ibarralde@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdeak: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitzaideak: 687 410 118. leitzaidea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezketeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Kontzertuak

- **Tolosa.** Tolosako Musika Bandaren Eguberri kontzertua Zerkausian 12:00etan.
- **Tolosa.** Atila y los Unos taldearen kontzertua etzi, hilak 26, Bonbernean 22:30ean Javi Otxoaren omenez.
- **Alegia.** Play Back taldearen kontzertua etzi, hilak 26, 22:00etan Gaztetxean.

Deialdiak

- **Leitza.** Truke Azoka Ateakeltz gaztetxean etzi, hilak 26, 11:00etatik 20:00etara. 21:30ean afari autogestionatua egingo dute eta ondoren festa egingo dute.

Dantza

- **Villabona.** Aukeran dantza konpainiaren 'Gernika. Mihise gaineko dantza' ikuskizuna etzi, hilak 26, Olaederra kiroldegian 22:30ean.

Kantu Jirak

- **Tolosa.** Tolosa kantari etzi, hilak 26, Tonto kaletik 12:00etan abiatuta, Alde Zaharreko kaleetan zehar. Betiko euskal kantak abestu nahi dituztenentzat irekia.

Zozketak

- **Villabona.** Behar Zana Elkarteko kideek bertan zozketatuko saskiaren irabazle izenak eta zenbakiak argitaratu ditu jada. Hauek dira saridunak: 15. eguneko 7339 zenbakidunak, hau da, Bengoetxeak saski txikia eskuratu du; 16. eguneko 1520 zenbakidunak, Juan Luis Etxeberriak, saski handia irabazi du; 17. eguneko 8635 zenbakidunak, Pelotak, saski txikia eskuratu du; eta 18. eguneko 4003 zenbakidunak, Manolo San Josek, saski txikia eramango du etxera.
- **Villabona.** Tolosaldea Saharare-

kin elkartean jaki bilketak aurrera darrai. Villabonako Eroski, Todo Todo, BM eta Udalean bertan utzi daitezke urtarriaren 4a bitarte. Alkizan ere *Piztu Itxaropena* kanpainaren baitan baita gauza bera egingo dute. Udaletxean bertan utzi ahal dira jakiak eta eskolarako materiala urtarriaren 31 bitarte.

Zinema

- **Tolosa.** 'Txori urdin' haurrentzako filma etzi, hilak 26, Leidor antzokian 17:00etan.
- » **GUARDIAKO FARMAZIAK**
- **Tolosa.** Etxebeste, J.M. Gernikoko arbola, 3. 943 65 10 40.
- **Betelu.** Carrillo, A Kale Nagusia, 5. 112.
- **Irurtzun.** Mutiloa, A.M. San Martin, 5. 112.

» TELEBISTA

- 28 Kanala**
08:30. Zahar berri. **09:00.** Muka Muka. **09:30.** Tolosaldean Gaur. **10:00.** Kafe t'ardi. **10:30.** On ein! **11:00.** Haurrekin jolasean. **11:30.** Tolosaldean Gaur. **12:00.** Kickboxing. **12:30.** Wazemank. **13:15.** Klipak. **13:30.** Tolosaldean Gaur. **14:00.** Kafe t'ardi. **14:30.** On ein! **15:00.** Haurrekin jolasean. **15:30.** Tolosaldean Gaur. **16:00.** Golb tb. **16:30.** Wazemank. **17:15.** Klipak. **17:30.** Tolosaldean Gaur. **18:00.** Gipuzkoa Kultura. **18:30.** EH lau haizetara. **19:00.** Golb tb. **19:30.** Tolosaldean Gaur. **20:00.** Ikusten. (* 16:30etik 20:00etarako blokea lau ordu errepikatuko da)

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Joko erraldoiak arratsaldea goxatzeko

GAZTELU Gazteluko Udalak umeentzako jolasak antolatuz zifuen pasa den larunbateko arratsaldea goxatzeko. Partxisa eta xakea bezalako jokoetan aritu ahal izan ziren haurrak, baina ez edonola, joko erraldoiak izan baitziren. Era berean, eskulanak egiteko aukera ere izan zuten. Udaletxeko arduradunek esandakoaren arabera, giro ederra izan zuten eta bertaratutako umeak oso gustura ibili ziren jolas artean. Behin jokoak amaituta Udalak merienda banatu zien Erroizpe Azpiko Kirol eta Kultur Elkartean. HITZA

Eskuratu



ko Bertsolari Txapelketa
Nagusiko **DVDa**
berria rekin



gogoratu noiznahi historia egin duen txapelketa

ABENDUAREN **24**TIK AURRERA,
zure kioskoan



+ 12 €

Baduzu zer oparitu
Gabon hauetan!

AUKERA EZAZU,
BIZI EUSKARAZ
berria

A Agurrak



Zorionak Olaia!

Olaia Zubeldia Azkolain (Ibarra). Aurrerapen pixka batekin bada ere, zorionak zure 5. urtebetetzean. Muxu handi bat birramona Tereren partetik.



Zorionak Oier!

Oier Txapartegi Karrera (Tolosa). Abenduaren 27an 9 urte. Zorionak Oier! Segi beti bezain bizkor eta jator! Amatxo.